



Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 37. zenb. 1997ko uztaila. 100 pzta.



Barrako proiektua legez kanpo



Elkarriketa

**Luciano
Paguegi**
udal
arkitektoa

650.
urteurrena
ospatzeko
ekitaldiak
hasi dira




**Zumaiako Fototekak
utzitako argazkia**



**HAURRENTZAKO
BARNETEGIA**

Batzuek seguruenik ezagutuko zenuten ikus dezakezuen argazkia. Orain erorita dagoen Zelaiako etxea duzue, eta orain dela urte asko udako barnetegi bezala funtzionatzen zuena. Argazki hau zehazki 1940. urtekoa da eta uda garaian, falangisten emakumeen mugimenduak barnetegi bezala erabiltzen zuten haurrak zaintzeko, eskurtsioak egiteko eta baita beste hainbat zereginetako ere.



kutxa fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKOUDALAK
lagundutako aldirakaria



BALEIKE HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Iantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,

Ladis Rivas, Dani Carballo,

Jexuxmari Martin

Bertso Eskola, Romu Artetxe,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Amaia Benito, Jon

Manzisor, Igone eta Nerea, Josu

eta Arantxa, Asier eta Fran,

Ainhoa Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 1.000 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Musika jaialdia:

Euskal Herrira zuzendu
nahian

.....28 or.



Pala txapelketa:

Oso arrakastatsua izan da
aurtengo edizioa

.....23 or.

Aitor eta Rikardo

Garai berean ezagutu nituen biak. Bata, alkate izendatua izan orduko Zumaiako Kirol Portu bat eraikitzeke borroka sutsu bati ekin ziolako. Bestea berriz, aldi berean herriaren alde eta espekulazioaren aurka lanean hasi zelako. Batak, biktima papera du gogoko, eta bere burua «mehatxatu» eta «iraindu» gisa aurkeztuz, herritar soilak seinatu eta publikoki iraintzeko lizentzia hartzen du aginteak ematen dion prepotentziari eutsiz.

Besteak aldiz, ez du ezer egin. Naturarekiko duen maitasunak eraman du Santixoko padura defendatu eta horregatik, alderdi politiko baten aldetik publikoki iraindua izatera. Rikardo eta bere alderdiak «Zumaiako ekologista entzutetsua» eta «herriaren defendatzaile» gisa aurkeztu digute Aitor, iraindu nahian edo. Xelebreena da Aitorri buruz esan duten hori egia dela, bi puntutan izan ezik: Aitor ez da oso pertsona entzutetsua, eta herri hitzak ez dauka kaxotxa beharrik erabilerara arruntekoa baita, guretzat behintzat. Agian alderdi horrek herrian sinisten ez duelako jarriko zizkion kaxotxak, edo agian idatzizko hizkuntzaren arauak ez dituztelako ezagutzen. Auskalo. Badaezpada «herri» honetako ehundaka lagun bildu ginen San Pedroan, Aitor ere gurekin zelarrik. Denok ere, elkarrekin eta inor iraindu edo mehatxatu gabe, argi eta ozen esan genizun Rikardo: Kirol Porturik Ez!



**Josu
Waliño**



PREMIAZKO TELEFONOAK:


Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia....	86 02 48
Alkoholikoen senideak...	47 54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44

IL CAPO

Bere gelara sarrarazi ninduen; han eman behar omen zidan agindutako dokumentua. Ekaineko lehenengo astelehena zen. Hiru egun lehenago --ostiralean-- telefonoz izan genuen elkarrizketan, dokumentu hori nire eskuetan uzteko ez zegoela prest azaldu zidan haseran. Ba omen zekien nik zein erabilera emango nion; ohiko erabilera maltzurra. Txosten hori ez omen zegoen edonoren esku uzterik, eta niganako konfiantza galdu zuela. Berak bazekiela Kontseiluko bilerak amaitu bezain pronto aurkariengana jotzen nuela nik.

Telefono bitarteko jardun hura ez zen xamur joan. Haren ukapena ez nuen gustoz hartu. Kontseilukide nintzen heinean txosten hori nireganatzeko eskubide osoa nuela gogoratu eta, ukatu behar bazidan, aitzakiarik erabili gabe, garbi ukatzeko entzun zuen nigandik.

Ostiral goiz hartako tirabira hark amaiezina zirudienean ordea, «aita ponteko» handi modura, txostena eskura nezakeela agertu zidan. Konfiantza galdua izan arren, beste aukera bat emateko prest zegoela. Nire hitza behar zuen horretarako, besterik ez. Hitza ematen banion, astelehenean bertan eskutan izango omen nuen.

GUTUNAK

Atal honetan zumaia-ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Gutunaren luzera gehienez orrialde batekoa izatea komeni da, bestela laburtu beharra izango dugu.

Halabeharrez, zehaztapen bat egin ondoren, hitza eman nion nik. Nire zehaztapenean traizioa susmatu zuen hark.

Asteburua igaro ondoren, asteleheneko ohiko bileran ostiralekoak ez zuen hitz bakar bat ere eraman. Bilera amaieran ordea, aurrea hartu zidan berak: --Txostena prest zaukat goian. Etor hadi! Goiko ofizinetara iristean, bere gelara sarrarazi ninduen; han eman behar omen zidan dokumentua.

Bulegoko mahaia bitarteko, aurrez-aurre eseri ginen. Mahai gainean ageri zen txostena. Esku artean fotokopia batzuk hartu eta azpimarratutako pasarteak irakurtzeari ekin zion; Gizarte Anonimoetako Legearen fotokopia haietan, kontseilukideen betebeharrak jasotzen ziren: derrigorrezko leialtasuna, informazioa gorde beharra, etab.

Irakurketa amaituta, bazirela

nire presentzia gustokoa ez zuten kontseilukideak azaldu, eta leiala ez den kontseilukidea kanporatua izan daitekeela gogoratu zidan. Txostena, «Estrategia de Lanza-miento del Puerto Deportivo de Zumaia» izenburua zuen txostena, mahai gainetik hartu eta alde egin nuen.

Aldegiterakoan, gogoan nituen entzundakoak. Jakin badakit «Capo»ek ez dutela mehatxatzen; zer gerta daitekeen iragarri baizik. Zumaia-kirol Portua, S.A.-eko kontseiluan egunak kontatuak neuzkala pentsatuz atera nintzen udaletxetik. Bera, alkatea, bere bulegoko besaulkian eserita geratu zen. Nik, bulegotik irten, udaletxea utzi, eta kalera jo nuen 97ko ekaineko lehen astelehen hartan.

Migel Aperribai
(HBko zinegotzia)

**EZKONTZA BATEN ZERGATIA**

Komentatu didatenez, herrian, azkenetako berri bat, Ixiar eta Juan Mariren ezkontza izan da. Hau jakiterakoan ziurrasko batzuen galdera izango zen: eta nolatan ezkontzen dira

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407



ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auza lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670



Habana
auto
Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 , 86 00 70
Zumaia

hauek eta elizatik gainera? Beste batzuk esango zuten: kontxo! azkenean *behar den* bezala ezkondu dira. Eta azkenengo batzuk esango zuten: a! espetxean ba al dago ba ezkontzerik? Horregatik, ezkontza honen zergatia pixka bat azaldu nahiko nizueke.

Badira bi urte zibiletik ezkondu ginela eta une horretan elizatik ez pasatzea erabaki baguenen, orain ere horrela erabakiko genuke, baldin eta, geure bizitza *normala* izango balitz, edo baldin eta, estatu espainoleko espetxeetan giza eskubideak errespetatuko balira.

Badira 10 urte etsaiaren eskuetan gaudela eta badira 10 urte, euskal preso politikoei aplikatzen zaigun dispartzio politika dela eta, ez gnuela elkar ikusten (epaiketetan deklaritzen egon garen minutuak ezik). Juan Mari ia 10 urte hauek, Ciudad Realeko Herrera de la Manchako espetxean egon da, ni berriz, Carabanchel (Madrid), Salto del Negro (Las Palmas) eta Bonxen (Lugon). Pixka bat fijatzen bazarete, konturatuko zarete herri batean hainbat preso egon hainbat espetxetan sakabanatuta egongo direla, eta horrela herri berdineko familiarrak ezin izango dute bidaiak batera egin, ekonomikoki eta moralki honek suposatzen duenarekin. Izan ere «dispartzio politika» presoak eta beraien

senitartekoak zigortzeko dago planifikatua.

Baziren 10 urte elkar ikusten ez gnuela eta espetxe politikan Gobernu Espainolaren jokaera ikusiz, argi gelditzen zitzaigun elkarrekin egoteko bide bakarra ezkontzea zela, zibiletik ezkontuta geundenez, eliza bakarrik gelditzen zitzaigun.



Ezkontza dela eta, Juan Mari hilabete bat eduki dute espetxe honetan (horrelako kasuetan hilabete bat edo hiru edukitzen dute jendea, eta guri minimoa tokatu zaigu). Ezkontza egunean hiru orduko *vis a vis* berezi bat eman ziguten. Honetaz aparte, tokatzen zitzaizkigun *vis a vis*ak ere eduki genituen, eta astean behin lokutoriotik (40 minutuko komunikazioak), espetxe berdinean dauden bikoteak eskubide hauek dituztelako.

Eta esango dezute, eta hain denbora gutxi elkarrekin egoteko ezkondu? Horko ikuspegitik agian zaila izango da ulertzea, baina 10 urtetan bikote baten harremanak, eskutitzetara (erderaz eta denak irakurtzen dizkigute) eta hilean bost minutuko dei batera (azkenengo 9 hilabeteetan astean bost minutuko dei bat egin dezakegu, guztiak ere grabatuak izaten direla) mugatzen direnean.... zaila da azaltzea ordu bete elkarrekin egoteak zer suposatzen duen.

Beraien «reglamento penitenciarioan» azaltzen den bezala, presoak bakoitzaren herritik hurbilen dagoen espetxean egongo bagina, legez tokatzen zaigun hileko *vis a vis* bat edukiko genuke elkarrekin, eta ezkontzak bezalako montaiak soberan egongo lirateke. Baina beraien legeak ere errespetatzen ez duten pertsonengandik ezer gutxi espero dezakegu. Beraz, zeezer lortzekotan guk geuk, denon artean, lortu beharko dugu eta lortuko dugu!!!

Besarkada bero eta iraultzaile batekin agurtzen zaituztet.

**AMNISTIAREN BIDEAN,
EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA.**

**Itziar Arrizabalaga
(Bonxeko espetxetik)**

OSA
BARNIZATUAK

ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta
auroa z/g
Aptdo. 78

Tel/Fax: 14 81 24
20740
IRAETA -ZESTOA

**BELARDENDA
SIWA**

Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Kalitatezko asistentzia medikoa

Larrialdi zerbitzua birrantolatu zenetik (1991) ez dira gutxi izan Udaletxe honek egindako ahaleginak: ikerketak, urgentzietako medikua ezartzea (herriaren diruarekin), datu bilketak, bilerak Osakidetzako ordezkariarekin... Larrialdietako Medikuen Aldeko Batzordea sortu ondoren ere zenbait urrats ematen jarraitu dugu. Hala ere, urteak pasa diren arren ez dugu jarritako helburua lortzerik izan.

Nork ez luke eskatuko herrian momentu guztietan mediku bat egotea? Baina hori planteatzearekin batera osasun asistentziari buruzko zenbait hausnarketa egitea bidezkoa iruditzen zait.

Alde batetik Euskadin dugun osasun sistema estatuko onenetarikoa dela inork ezin du zalantzan jarri eta bestetik Zumaiako zentruak, Gipuzkoa mailan, eta hobekuntza urbanistikoak behar dituen arren (hortan ari gara), eskeintzen dituen zerbitzuak ugari eta aurreratuenak dira (ez dira urte asko edozein frogatik egiteko Donostiara joan behar genuela).

Guzti hau egunez; baina arratsaldeko 5etatik aurrera zer? Ba, 088 telefonora deitu behar da edo/eta Zarauzko zentrura joan. Hau da onartzen ez duguna, gure sentimenduek beste zerbaite eskatzen digute.

Especialistek berriz, zerbitzuaren kalitatea aldarrikatuz, gehiago baloratzen dute bitartekoak edukitzea (anbulantzia medikalizatua), hori baita larrialdien aurrean

Montse Arana

laguntzen duena, bizitzak salbatzen dituen.

Hau dena jakinik Larrialdietako Medikuen Aldeko Batzordea Arartekoarengana zuzendu zen. Batzordeko ordezkariari bidalitako erantzunean besteak beste honako pasartea irakur dezakegu: «...datuen arabera, ez dugu inolako arrazoirik ikusten Osakidetzari larrialdiak atenditzeko oraingo antolabidea alda dezan eskatzeko».

Eta aipatutako datuak puntu hauek aztertu ondoren atera dira:

- Abisuak atenditzeko aurrez finkaturiko helburuari begira.

- Zumaian atenditutako larrialdi abisuen kopurua zenbateraino aldatu den, bertan medikua zegoen aldikoen aldean.

- Zarautz aldeko herrietan

eman den larrialdiko asistentzia maila, Gipuzkoako gainerako hamaika larrialdi zerbitzuen datuekin alderatzea.

Eta ondorio bezala horrela dio Arartekoaren txostenak: «...zerbitzuaren kalitatea hobetu dela uste dugu, etxetik etxeko asistentziari dagozkion errekursoak gehitu egin baitira eta entzuteko denbora egokia lortu».

Momentu honetan larrialdi mediku baten aurrean, zumaierrok errekurso hauek ditugu:

- 088ra deitu (dudarik gabe garrantzizko aurrerapena izan dena edozein larrialditarako) edo Zarauzko zentrura joan.

- Bi ambulancia herrian, beti 088tik aginduta (urtarrilean batere gabe gelditzekotan egon ginen).

- Sendagiledun ambulancia (UVI mugikorra) hemendik 15 minutura, kalitatezko profesionalekin.

Ez dakit bitarteko hauekin kalitatezko zerbitzua ematen den baina ziur gure egoerak ez duela zerikusirik Zairen jasaten ari direnarekin: «Zumaiko herriak larrialdien aurrean duen egoera Gipuzkoako beste eskualdeena bezalakoa da».

Beraz, Osakidetzak duen zerbitzua ona ez dela demostratzeko, zerbaite aurkeztu behar dugu sentimenduaz gain: **datuak**. Horretarako erreklamazio sistema 96ko uztailetik ezarria du Udalak. Anima gaitezen, jasotzen dugun zerbitzua egokia ez bada kexak aurkezten.



Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

ERTZ INFORMATIKA
UDARAN INTERNET
OFERTA:
PENTIUM 166
CD-ROM
Koloretako inprim.
Mendaro Mariñela 3,
TEL. Fax. 14 33 95



MIRIAM
ROMATET

Aitortzen dut, erosle purrukatua naiz

Bai, hala aitortzen dut. Gainera erosle peto-pettoa naiz, txikitan hasi eta urteen poderioz trebatua: ikastolako garaietan amama zenari karteratik txanponen bat edo beste lapurtzen nizkion (bera ezertaz ohartzen ez zelakoan) beheko plazako bolera coca-cola zaporeko gominolak erosteko, eta oraindik gogoan dut ez dakit zenbagarren mailan Igeldora egin genuen kurtso amaierako bidaian etxerako erosi nuen hogeituroko subenirra.

Hala ere, gaztaroan neuk irabazitako lehen txanponek eman zidaten pozak sartu ninduen benetako erosle mailan; hura gozamina, hilero dirua «inbertitzeko» modu berriak erabaki ezinik: erropa, liburuak, pitxiak, koloniak, eta berriz erropa, diskak, gutxiak...

Gaur egun, guztiak bezala, pentsatuko duzue «erosketazaleak», denborarekin xarma apur bat galduko zuela niretzat, baina bai zera! Izan ere hainbat eta hainbat aukera dituzu! Erregetako edo urtebetetzeetako plazerretatik hipermerkatuko «behar-beharrezko» karro beteko erosketetara, hain gama zabala: loredendan sasoiko landaretxoak, jai eta ferietako mahaitxoak, hirietako denda berezi eta galeriak (Max Center, uah!), «todo a 100»eko txokoak, likidazioan dauden dendetan derrigorrezko bixita...

Bai, badira egun gogorak, asmorik sendoenak ere zapuztu eta ezer erosi gabe itzultzen naizen horietakoak, baina tira, lainoen atzetik beti dator eguzkia eta barauaren ondoren berriz txanponak eta kreditu txartela dantzan jartzeko une goxoak.

On dagigula!

650.
urturrena



GORKA
IRIBAR

Doinua:
Iparragirre abila dela...

Narrondo eta Urola ibaiak
itsasoratze unean
Zehatz aldetik etorri ziren
kristauak gogo onean
lekua proposa
alaitasun ta poza
hau aurkitu zutenean
bertan bizitzen gelditu ziren
elkarren aldamenean

Lehen herritxo txiki bat zena
egin zaigu handiago
etxe politak denda ederrak
orain denetikan dago
pasa diren urteak
eraikitzen etxeak
bai hemengo ta bai hango
hurrengo urtean seguruenik
ez da berdina izango



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Barrako proiektua baliogabetu egin du Euskal Auzitegi Gorenak

Proiektuan irregulartasun batzuk daudela ondorioztatu du

Euskal Herriko Auzitegi Gorenak Josu Urangak Zumaia Bizirik herri ekimenaren izenean aurkeztutako errekurtsioa onartu du. Honen ondorioz, eta barrako obrak gelditu ez arren, Proiektua legez kanpokoa dela erabaki du, legediak eskatzen dituen ezinbesteko baldintza batzuk bete ez direlako.

Hainbesteko buruko min eman dituen portuko barraren auziak jaso du azkenean aspaldidanik itxaroten zen sententzia juridikoa. Sententzia argia da: barrako proiektua nuloa, baliogabea deklaratzeko da, era honetako lanak exijitzen dituen baldintza batzuk bete ez direlako. Hauen artean, garrantzitsuenetakoa da Ingurugiroari Buruzko Azterketa, proiektua onartu ondoren egin baita. Zentzu honetan, epaiaren arabera ingurune natural zehatz baten erabateko aldaketa dakartza barrako obrak.

Ricardo Peña Zumaiaiko alkatearentzat, Auzitegi Gorenak hartutako erabakia ez da sorpresa izan. Onartu du akats batzuk egon direla proiektuan. Dena den, kexatu da hemen Zumaian gertatutakoa ez



Gauzak oker egin zirela erakutsi du auzitegiaren epaiak.

dela beste herri batzuetan eman. «Getarian, Hondarribian, Ondarroan... kofradiak dauden lekuetan hain zuzen, ez da egin Zumaian eskatu dena. Inoiz ez da talderik egon kofradiak apoiatzen duen proiektu bati kontra egiten. Zumaian berriz, talde ekologista bat dago, aurka jarri dena, beste herri batzuetan ez bezela».

Alkatearen hitzetan, gertatutako akats guzti horien errua promotoreak du, hau da Eusko Jaurlaritzak.

Hala ere, gaineratu du «obra guztietan prozedimenduak oso konplexuak dira, eta bosgarren hanka bat topatzen saiatzen denak beti aurkituko du irregularitatearen bat».

Barra baliogabe deklaratzeko arrazoiak

1- Portuko plan berezia ez onartzea, eta hau egitea derrigorrezkoa da Udalaren arau ordezkatzailen arabera.

2- Kosta Legeak derrigortzen dituen itsaso nahiz lehorreko lur publikoan proiektuak izan zezakeen eraginari buruzko azterketarik ez aurkeztea, eta proiektua jendeaurrean ez azaltzea.


3- Ingurugiro eraginari buruzko azterketa eta honen adierazpenik eza.

Guztira, barrako lanetan 2.000 milioi pezeta erabili dituzte.

ZALLA
Taberna - Erreategia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Paki
Belardenda
OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tlfnoa: 861160
ZUMAIA

Etorkizuna

Epaiak eragingo dituen ondorioak zeintzuk izango diren ez daki Peñak. «Badakit sententziak ez duela eskatzen barra desmantelatzea; Zumaia Kirol Portua osatzen duen elkarte horretan, Udala zati bat da eta prozesu guztian pauso guztiak oso ondo ari gera ematen».

Ildo honetatik, kirol portuarekin aurrera joko dela argi utzi du, ematen ari diren urrats guztiak legezkoak direlako beren ustez. «Ekologistek salatzen zuten ingurugiroarekiko inpaktu azterketa ez zen egin, orain ordean bai; inpaktu deklarazioa ere une batetik bestera burutuko da, bertan neurri zuzentzaile batzuk agertuz».

Zumaia Bizirikek Rikardo Peña alkatearen dimisioa eskatu du

Zuzenketa hauek egin ondoren ez dela arazorik egongo uste du alkateak. Bere iritziz, «barraren inguruan sortutako borroka hau talde zehatz baten eskutik etorri da, batzutan argudio ekologistak erabiliz, beste batzutan ekonomikoak...». Kirol portuaren baitan, aurreiritzi asko daudela aipatu du, eta gauzak komenientziaren arabera egiten, kritikatzeko direla.

Zumaia Bizirik proiektuaren aurka errekurtsioa ezarri zuen taldearentzat, «Auzitegiak emandako sententzia oso grabea da, gogorra. Itoitzeko urtegia, eta Nafarroako ubideko arazoaren parekoa, egoera berdintsuan lanak eginda daudelako». Arrazoia emateaz gain eta irabazitako sinesgarritasunarekin batera, Zumaia Bizirik-ek barra Portuetako Plan Bereziari egokitzuz legeztatzea eskatzen du.

Are gehiago, erantzukizun politikoak eskatzen dituzte. «Batetik Eusko Jaurlaritzari eta era berean, barrako proiektuan partehartze zuzena duen Zumaia Kirol Udalari. Zehatzago esanda, Ricardo Peña alkateak dimittitzea eskatzen degu». Izan ere hauentzat, behar adinako garrantzia duen gatazka honek eskuetatik ihes egin dio alkateari.

Kirol Portuko proiektuarekin ere antzeko zerbait gertatzen ari dela salatu du Zumaia Bizirikek,

legeak exijitzen dituen baldintza batzuk ez direla betetzen, eta presaka jokatzeko ari direla. Beren ustez, IKEI enpresak kirol portuko promotorarentzat egindako azterketa ekonomikoak argi dio: «kirol portua arrakastatsua gerta dadin, 1999ko maiatzeko eraikia egon behar du. Beraz, eraikuntza eta koordinazio lanak kontutan hartuta, lanak 97ko azaroan hasi beharko lirateke. Hau horrela izan ezean, kirol portua egiteak ez du zentzurik».

Epe hauek errespetatzea ia ezinezkoa ikusten du Zumaia Bizirikek. Talde honentzat, kirol portuak, eginda ere zentzurik ez luke, bere inguruan hainbat instalazio nahiz zerbitzu egongo ez balira. «Besteak beste bi golf zelai, eta garrantzitsuena, zentru komertzial bat; hau da, herriko komertzio eta denda txikiak honen aurrean oso egoera larrian aurkituko lirateke».

Barraren
auzia
aspalditik
datorren
kontua da.



IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Maiaur
jolastokia



Kirol portuaren kontra hainbat ekitaldi

Ekaineko azken asteburuan San Pedro festak bete-betean hartzen zituela, ekintza ugari burutu ziren Zumaian egin nahi den kirol portuaren kontra. Astebete lehenago parodia bat egin ondoren, herriko talde batzuk kontzertu bat eskeini zuten Beheko plazan. Manifestazio jendetsu bat ere burutu zen, eta besteak beste kanpoko talde ekologista askok ere beren elkartasuna adierazi zuten. Gainera, 194an bezala baltsa bat ezarri du Zumaia Bizirikek Urola ibaian, erreibindikazio gisa.



Laburrak

PO musika taldea konpakto batean partaide

Gaztemaniak ekimenak aurtan antolatu duen maketa lehiaketan Gipuzkoako 14 talde aurkeratu ziren konpakto batean azaltzeko, eta hauen artean Zumaia PO dago.

Konpaktu honen bidez Gipuzkoan egiten den pop eta rock berria ezagutzera eman nahi da. Taldeak oraingoz kontratu diskografikorik gabekoak izatea izan da baldintza ia bakarra.

Konpaktoarekin batera fanzine bat banatzen da; Gipuzkoako rock eszena, Red Snapper, diska kritikak eta beste artikulu gehiago. Konpaktu bat eskuratu nahi duenak bizkor ibili beharko du. Dendetan aurkitzen ez duenak (Zumaian nahiko zaila) honako helbide honetara jo dezake:

CRAJ!

(Gaztemaniak! musika)

Anoeta Pasealekua 28.

20014 - Donostia

Salneurria: 350 pezta.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Aurreko urteetan bezala, Udalak dirulaguntzak ematen ditu 96/97 ikasturterako. Eskaerak uztaileko eta iraileko lehen hamabostaldietan egin ahal izango dira eta ezinbestekoa da zuma-iarra izatea eta gutxienez % 75eko asistentzia. Udaletxean bertan emango dizute argibide gehiago.



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA



ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Agian askok ez duzue ezagutuko bizilekutat Donostia aukeratu duen markinar hau, baina jakin ezazue badirela zazpi urte Udaleko arkitektoa

Luciano Paguegi

dugula. Zumaiaaren garapen urbanistikoa, gaur eguneko egoeraz eta etorkizuneko proiektuetaz galdegin nahi izan diogu.

«Igerilekuarekin urte amaieran hasiko gara»

SORTU ZENETIK, HISTORIAN ZEHAR NOLA JOAN DA ZABALTZEN HERRIA?

Zumaia parrokiaren inguruan sortu zen herri bezala. Horko gain horrek babesleku itxura hartu zuen, harresi batez inguratua. Esan daiteke Mari eta San Pedro kaleek mugatzen dutela hasierako herria. Gero, harresiak gairitu eta atzekalderantz zabalduz joan zen, eta hor sortu ziren Harategi kalea eta Kale Nagusia, besteak beste. Mende honetara etorri, herri gehien dinamik jarraitu du. 50-60ko hamarkadetan etxebizitza behar handia sortu zen boom industrialaren eraginez. Neurri eta kontrol gabekoa izan zen garai hau, eta orain orduko astakeriak pairatzen ari gara neurri batean.

URBANISTIKOKI BA AL DU BEREZITASUNIK ZUMAIK?

Alde batetik, esango nuke inguruko herrien antzekoa dela. Baina badu zerbait berezia eta ona: bi ibaien itsasoratzeak lur eremu erakargarria eta zabala sortu du. Kostaldeko beste herriekin alderatuz, abantaila hori du. Baina egin dira astakeriak ere. Adibidez, Basadi, Aita Mari eta Larretxo.



Luciano astelehenetan eta asteartetan egoten da udaletxean.

Poligonoa garai batean fadurak eta gero baratzak egon ziren lekuan eraiki zen. Larretxokoa gogorragoa da, maldan baitago eginga. Hauetan ikusten dudan arazo larriena espazio falta da. Ez dago garbi zehaztuta non dagoen plaza bat edo parke bat.

ONDARE HISTORIKOA, ONDARE ARKITEKTONIKOA BABESTEKO MODURIK BA AL DU UDALAK?

Gehienbat Aldundiaren eta Jaurilaritzaren esku daude gai hauek. Diru arazoa da nagusiki.

Dugun ondarea, interesguneak, sailkatuak daude, nolabait kontrolatuak daude. Arazoa mantentzeko orduan iristen da, lanak oso garestiak baitira kasu hauetan. Zumaian adibide argiena Torre Berrirena da. Askotan jo dugu Aldundira laguntza eske, egin beharreko lanak eta horren erabilera zehazten dituen txosten eta guzti, baina 200 milioiko aurrekontuaz hitz egiten ari gara, eta hori gaur egun ezinezkoa da. Egingo duguna da gaur egun dagoen bezala

ENTRA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458



KALARI
TABERNA

Zuzendaritza berria

- Eguneroko bazkaria
- Pintxo eta bokatak
- Koadrilentzako menu bereziak
- Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea 16 Tel. 86 25 17



Juan Belmonte 6
ZUMAIK Tel. 860415

mantendu. Lanak izango dira harriren bat erortzeko arriskurik egon ez dadin. Lan hauek 3,5 milioiko aurrekontua dute eta Aldundiaren erantzunaren zain gaude.

ZEINTZUK DIRA UNE HONETAN AURRERA ERAMATEN ARI ZARETEN PROIEKTU GARRANTZITSUENAK?

Martxan dagoena, eta amaitzeko zorian, Oikiako frontoia da. Uztailaren erdialderako guztiz amaiturik egongo da. Uste dut ondo geratu dela, eta neurriaren aldetik bat egiten duela auzoarekin.

Gero, igerilekuaren proiektua hil honetan bertan jasoko dugu, eta lanak urte amaieran hasiko dira. Kiroldegiaren ondoan egongo da, perpendikularki, Ayra Durex aldera. Hegoaldeari begira egongo da, honek energia aurrezteko suposatzen baitu, eta gainera solarium bat egiteko aukera ematen du. Egin beharko dena da futbol zelaia 13 metro inguru mugitu ikastola berriruntz. Etorkizunean, Aita Mari kaleak irteera izango du Ayra Durex alderaino, eta orduan futbol zelaia enpresa honen atzekaldera eramane beharko da, baina oraingoz ez dago horretarako dirurik.

ZUMAIAN BADA URTE MORDOA BARIANTEAREN BEHARRA IKUSI ZELA. ZE BERRI DAGO ARAZO HONEN INGURUAN?

Duela hilabete inguru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamenduak lehiaketara atera zuen proiektuaren kontratazioa. Honek esan nahi du proposamen



Parrokiaren inguruan kokatu ziren herriko lehen etxeak.

ezberdinak jaso eta onena aukeratzeko dela. Gero, proiektu hau garatu egin beharko da. Udaleko arauetan jasotzen den ibilbide berdintsua izango du: Torreaga ondotik sartu eta estazio aldetik, trenbide ondotik, Txikierridira atera. Badago bariante hau egiteko asmoa.

HERRIA NORAINO HAZIKO DA, UDALAK ZEHATZU AL DU NOLABAITEKO MUGARIK?

Arauetan aurreikusita dagoen arabera, Ayra Durex arte hasiko da; ikastola berriak ezartzen du oraingoz muga. Esan daiteke, etxebizitzetara dagokionez, Ayra

Durex oztopo bat dela herria zabaltzeko. Herriak etengabe aldatzen doaz, denboraren eta beharren poderioz. Noizbait hor etxebizitzak egingo dira, zailtzarrik gabe. Bestalde, 1. sektorea dago, hau da, Karmelo Unanue eta ardantzabide, Algorriraino. Hor Kostaldeko Legea izan behar da kontutan, eta baita ingurunearen balioa. Bertan, 145 etxebizitza daude aurreikusirik. Amaia plaza beste 75.


GOROSTIAGAKO POLIGONOAN NOIZ HASIKO DIRA LEHEN LANAK?

Lurrak mugitzen laster hasiko dira. Gainera, lur hau kalitate



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA



Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707



Garai batean ingurune honetan padura eta baratzak egon ziren.

onekoa da eta poligonoko lanetan erabiliko dugu. Oso zaila da zehaztea poligonoa noizko egongo den guztiz amaiturik. Kontutan izan behar da Udalarena lehen zatia baino ez dela. Bigarrena, beste hiru jabeena. Beste guztia, printzipioz lur erreserba bezala geratuko da.

BEDUARENTZAT EGIN ZEN PLAN BEREZIAREN AURRERAPENAREKIN

ZER GERTATU DA?

Plan hau oso interesgarria da. Errepide nagusiko zubitik Oikian dagoen zubi erromantikoraino iristen zen, bi ibai ertzetako zatiak hartuz. Gorostiaga eremu industrial bezala onartzen zuen. Aurrerapen bezala geratu zen eta une honetan geratuta dago. Baina ziur nago egunen batean martxan jarriko dela.

Alde Zaharra berreskuratzeko Plan Berezia

Alde Zaharra berreskuratzeko Plan berezia lantzen ari da talde bat. «Uztail hasieran jasoko dugu ziurrenik. Plan honek bi helburu izango ditu. Alde batetik, eraikuntzei babes maila ezberdina emango zaie duten balio kulturalaren arabera. Babes maila hauek zehaztuko dute etxe horietan egin daitezkeen berritze lanak eta zeintzuk ezin diren. Honi esker posible izango da Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzea, finantziario baldintza errazak lortuz. Bestaldetik, espazio libre eskasia dago inguru horretan. Mojak dauden bitartean ezer gutxi egin daiteke, baina egunen batean, euren jarduera amaitzen denean, lur pribatu horiek publiko bihurtzeko asmoa dago, aparkalekuak edo plazaren bat egiteko».

«Bariantearen proiektuaren kontratazioa duela hilabete bat atera zen lehiaketara»

ASPAIDIAN BASUSTA INGURURA HURBILDU EZ DENAK SORPRESA HANDIA HARTUKO LUKE HURA NOLA HAZI DEN IKUSIKO BALU.

Printzipioz aktibitate hori onartuta dago lur horretan. Baina gauza bat da onartuta egotea eta beste bat kontrolatuta egotea. Hor kontrol falta bat egon da, eta pixkanaka handituz joan da. Udala konturatu da horretaz, eta jabeari txosten bat eskatu zaio, orain arte egin duen guztia zehaztu dezan. Bere lur jabetzak noraino iristen diren ere aztertuko da, egindakoa zuzena den edo ez argitzeko. Gai honetan Aldundiaren bat egin dugu, eta informazio guztia aztertzen denean erantzun bat emango zaie.

AMAITZEKO, BA AL DAGO ARTXIBOA ERA TXUKUN ETA EGOKI BATEAN ANTOLATZEKO ASMORIK?

Behar hau aspaldidanik ikusi dugu. Gure udaletxeak duen arazo larriena toki faltarena da. Batez ere, Hirigintza sailan dokumentu ugari sortzen dira. Arazo hau neurri batean konpontzeko aurreikusita dago diru bat. Hori bai, 2000. urtera begira ezinbestekoa izango da dokumentuak digitalizatzea. ■

ILE APAINDEGIA

Merca
Uragua

Etkezaretza, 19
Telefonoa: 862342

20750 ZUMAIA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375

ZUMAIA, 650 urteko herria

Udazkenetik aurrera izango dira kultur ekintza gehienak

Uztailaren 4an bete ziren 650 urte Zumaia herri bezala sortu zela. Urteurren horren ospakizunak prestatzeko hainbat bilera izan dira azken hilabete hauetan, egun honetara heldu arte. Ospakizun ekitaldiek orain hasi eta datorren urteko uztailera arte iraungo dute.

Ostiralez, udaletxeko pleno aretoan eman zitzaien hasiera urteurrenaren ospakizunei. Bertara euskal politikako kargu goren batzuk hurreratu ziren, besteak besteraien Eusko Jaurlaritzako kultura sailburua Mari Karmen Garmendia, Gipuzkoako aldun nagusia Roman Sudupe, bailarako alkateak eta herriko alkate ohiak. Ekitaldian, Ricardo Peña alkatearen ongi etorriaren ondoren, Elena Barrena, Deustuko unibertsitateko irakasleak, Zumaiako «carta pueblari» buruzko hitzaldi bat eman zuen. Ondoren alkate soinuaren doinuez lagunduta, udaletxetik parrokiarako bideari ekin zion jendeak bertan plaka bat ezarri behar baitzen.



Hilaren 4an Zumaia sortu zutenen omenez plaka bat ezarri zen.

Ospakizunek larunbatez jarraitu zuten. Arratsalde guztian antzerki taldea ibili zen kaleko giroa alaitzen. Udal musika Bandaren kalejiraren ondoren, Inazio Tolosak aurkeztuta, kultur ekitaldi bati hasiera eman zitzaion Eusebio Gurrutxaga plazan. Izar Martin eta Juan Luis Blancok egindako txalaparta erakustaldiaren ondoren, bertso eskolako gazteak izan ziren kantari. Ekitaldiari amaiera San Pedro Txiki abesbatzeko haurrek eman zioten. Gauean, aldiz, Parrokiako San Pedro abesbatza izan zen Mari

kaleko plazatxoan beren kantuekin asteburuko ospakizunei amaiera eman ziena.

Udazkenetik aurrerako kultur ekitaldiak

Sarreran esan den bezala, 650. urteurrenari buruzko ekitaldiak orain hasi eta 1998ko uztailera amaituko dira. Horien artean hitzaldiak, erakusketak, argitalpenak eta beste ekitaldi batzuk aurki daitezke. Horietako batzuk, Zumaiako historiari buruzko bideoa eta herriko musikaren ikerketa (disco bat

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201



ateratzeko asmoarekin) martxan badira ere, oraindik guztiz finkatu gabe daude. Saio denak udazkenetik aurrera izango dira udako musikaldian eta arte jardunaldien barne izango diren herriko artisten oroimenezko saioak eta erakusketa izan ezik.

Ekitaldien artean hitzaldiak, erakusketak eta argitalpenak egongo dira

650. urteurrenaren ospakizunen barruan, beste bi urteurreni ere lekua egingo zaie. Alde batetik Angel Enbil musikari zumaiarra jaio zela 100 urte bete zirela eta, azaroaren 7tik 9ra Pola de Sieroko abesbatza izango da Zumaian abesten. Bestetik, Pablo Sorozabal musikagile bilbotarraren lehen mendeurrena 1998an betetzen denez, haren omenez txistulari alarde bat izango da.

Hitzaldiei dagokienez, bi hilabetetik behin izango dira eta hilabete bakoitzean bi hitzaldi izango dira. Jorratuko diren gaien artean, Zumaiaiko artea, herriaren hirigintza eboluzioa, portua, merkataritza eta untzigintza, hezkuntza (Julene Azpeitiari aipamen berezia egingo zaio), eraldaketa soziologikoak eta beste batzuk egongo dira. Aipatu beharra

dago, hilabetean izango diren bi hitzaldiek zerikusia izango dutela. Hizlariak Eusko Ikaskuntza, Aranzadi eta EHUKo irakasleak izango dira.

Urteurrenaren barruan, erakusketak ere aurki daitezke: Zumaiaiko artxibo eta fototekari buruzkoak, eta Beheko Plaza elkarteak antolatuta, hauen egitzan ikusgai egongo den untzi maketen erakusketa. Datozen hilabeteetan, Zumaia gai bezala hartuz argitalpen batzuk aterako dira. Laster kalean izango da herriko 12 pertsonaien irudiekin egindako egutegia, eta honako zumaiaarrak bilduko ditu besteak beste:

Bonifazio Etxegarai, Julio Beobide, Patxita Etxezarreta, Olazabal Idazkaria, etab. Urtean zehar emango diren hitzaldiekin ere, liburu bat ateratzeko asmoa dago. Fototekako argazki zaharren liburua ere aterako da. Azkenik, datorren urtean amaituko du Aranzadi elkarteak kidea den Lourdes Odriozolak Zumaiairen historiari buruz prestatzen ari den liburua.

Ekitaldi hauen eguna eta lekua zein izango den oraindik erabaki gabe daude, hala ere garaiz iragarriko dira. Ospakizun ekitaldiek luzerako joko dute oraindik. Beraz, lasai hartu. ■



Antzerki Taldeak larunbateko ekitaldia ederki animatu zuen zuen.

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-

euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean


Amaiako plaza z/g Tlf: 143278






Herri hortan baze-
goen padura bat (ba-
tek baino gehiago na-
hiko zutkeen horrelako
bat bere herrian).
Urtero, ehundaka
txori ipaten ziren bertan.


Behin batean, ba omen zen
biztanle jatorreko herrirako bat.



Baina egun batean herrirako agintariak herritarrei galdetu
gabe, erabaki (*) omen zuten padura hortan kirol portu bat
eraikitzea. Goi mailako atzerritarrak erakartzea omen
zen beraien helburua.




*(kontutan izan behar hauen
erabakiak gehienetan goi-
tik datozen aginduak bes-
terik ez direla)



Buketzean
pesta izuga-
rri bat egin
zuten. Pa-
durako eta
izan zen
plater na-
gusia.

THE MOST BEATIFULL KIROL PORT OF D WORLD

ZUMAIA
2005



2rte batzuk beranduago paduran ez zegoen txoririk, ibzian ez ze-
goen arrainik, herrian ez zegoen gaiztirik (lanik ez zegoen eta etxebizi-
tzak izugarri garestitu ziren) eta kirolportuan ez zegoen itxasontzarik
izan ere kanpotik ez zen utzirik etorri eta esku pribatuetan erortzean K.p.a
amarreak izugarri garestitu ziren eta herrikerrek nahago zuten txipi-
ronera garajeen sartu, hainbeste diru ordaindu baino lehenago.

Baina..... oraindik itxasontzi bat geratzen da
Belauntzi haundi eta motore bat.
Norena ote da?



Norregaitik
eta beste azula arrazogaitik

1000-
20407-NE502
1000-20407-NE502





Txarangakoak ere musikoak dira, eta musikarik gabeko festarik ez dagoenez, lana egin behar! Parrandarako tarteren bat topatuko zuten, hala ere.

Txanpon baten truke!

Halaxe ibiltzen dira Tolosako dultzainero «golfo» hauek, festarik festa, eta batzuetan zuzenean joan ohi dira goizeko diana jotzera, batere lorik egin gabe. Argi ibil daitezela!, aurki zumaiarrekin konpetentzia latza izango dute eta!



Batzuk atxurrarekin zebiltzan bitartean, Mugerzak aizkora ederki astindu hor goialdean. Hori dek abilidadea!



Aspaldiko partez eguraldia lagun izan genuen, eta Dantzari Eguna merezi bezala ospatu zen, bizitasun eta kolorez betea. Ehundaka dantzari gazte izan genituen kaleetan zehar, eta arratsaldean Beheko plazan denak batera alarde berezia burutu zen.



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumai

TXOKOA



T
B
E
R
N
A

**Artadi
Auzoa**

86 21 89



AIZPURUA

L
I
B
R
O
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMALA

Bexamela eta pastela, bietatik zein nahiago? Hauei itxura denez berdi-berdin zaie; aukeran nahiago manboa. Baina bueno, bidean bexamelen bat tokatuz gero... edo zergatik ez, pastel goxo bat...



Jakina, batzuk parrandan eta beste batzuk lana egin behar serio-serio, baietz Aitor? Lasai, etorriko da buelta eta.

Narrondoko Jaiak

Hilaren 13an amaituko dira Narrondoko jaiak. Aurten, nobedade nagusiena igandean izango den Lehen Artzai Txakur Lehiaketa degu. Arratsaldeko 4.30etan hasiko da ikuskizun polit hau «Galvanizados Olaizola» lantegiko zelaietan eta bertan lau txakurrek hartuko dute parte.

Ostiralean, afari herrikoiairen ondoren, dantzaldia egongo da Zabaleta eta Imanolen eskutik.

Larunbatean, mus txapelketa, ume jolasak eta txokolate jana izango dira, eta amaitzeko Lotxo musika taldearen saioa.

Artzaien eta hauen txakurren abileziak ikusteko aukera egongo da Narrondoko jaietan.



Igandea berriz festa hauetako azken eguna ospatuko da. Goizean goiz auzokoei diana joko dute, eta hamaiketara herri meza izango da. Ondoren, aipatutako artzai txakur lehiaketa burutuko

da. Arratsaldeko 7.30etan urtero ohi den bezala, herri kirolez gozatzeko aukera egongo da Gorriti eta bere animaliekin. Eta festa hauei amaiera emateko, Los Rubi taldearekin dantzaldia.

AHOLKULARITZA
JRURE

GESTORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel. 861485

English School
Harvest Helbide berria!

Orain Musika Eskolaren aurrean!!

San Jose 11 bis Tel. 143334



**JON
LERTXUNDI**

Bai eta ez. Bai ze lengo tradiziua da eta ez ze ez naiz mezeta juten. Halare hil ta gero ni zerura jungo naiz.

Zeruan eta inpernuan sinisten al dezu?



**JAVIER
ALDALUR**

Seguru, seguru! Zerua seguru. Imaginatzen naiz Jesukristok egindako etxe haundi batean biziko gerala. Ez det inpernuan sinisten, ez det pentsatzen Jaungoikua horren gaiztoa izango danikan. Gure kapsula hemen geratuko da hiltzen geranian baina arima zerura!



**IÑIGO
OTXANDIANO**

Nik sinisten dut, eleizara ere joaten naiz batzutan, denbora dudanean. Ez dakit nolakoa izango den zerua, igual hau bezelakoa, eta infernua suakin izango da igual.



**AGUSTIN
ARANA**

Duda barik sinesten dut zeruan, baina ez naiz imaginatzen nolakua izango dan. Neretzat infernua hau da. Onak izan gera eta zerura joango gera.



**IKER
ORTIZ**

Batez. Eleiza ere ez naiz batere juten. Hil ta gero zulora guaz betirako.



**JOXE MARI
AIZPURUA**

Ez det sinisten eta berdin zait hiltzean nora joaten naizen. Hemen geldituta ere berdin zait.



**ERRAMUN
TELLERIA**

Zeruan eta inpernuan sinistu? Ez mesedez. Ze asmakizun dira hoiek? Hiltzen naizenian ez naiz inora jungo, ezta beharrik ere!



GILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tel: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxe. 860169



ARRAIN ETA
MARISKOAK

MARES

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

Ba ote dago dinosauriorik Algorrin?

«Muy Interesante»-n edo antzeko al-dizkariren batean irakurri duzula zerbait gai honi buruz? Algorrik dinosaurioekin zerikusirik baduela entzun duzula? Zerbait badakizu baino zeharo nahasturik zabilta. Zumaia eta Deba arteko urradura plataformak gordetzen duen sekretua argitzen saiatuko naiz ondoko lerroetan.

Dinosaurioen desagerpena:

Imajinatu 65 milioi urte atzera egiten dugula historian. Euskal Herria ia osorik urpean zegoen, eta gaur egun tropikoetan ikusten ditugun arrezifeak zeuden gure uretan, koralez eta amonitez osatuak. Irla edo arrezife hauek gaur egungo Aralar, Aitzgorri, Urbasa edo Andutz dira. Kontinentea, lurra, atzerago zegoen, Errioxa eta Burgos inguruan; bertan ederki asko bizi ziren dinosaurioak.

Gaur egun Zumaia dena itsaso azpian zegoen hondoratua. Bertan, kontinente aldetik ibaiek ekarritako hondarrak eta basak pilatzen joan ziren, gaur egun gertatzen den bezala (ibaiek ekarritakoa itsas hondoan pilatzen da).

Panorama honetan, izugarritzko ezbarra gertatu zen. Me-



Algorriko pizinan ikus daiteke dinosaurioen desagerpena eragin zuen meteoritoak utzitako geruza.

teorito handi batek luraren kontra jo zuen (Mexikoko golkoan). Bonba atomiko handi baten eragina izan zuen. Atmosfera osoa kez eta errautsez estali zen urte askotan. Lehenik lurra asko berotu zen, luraren berotasunari eusten ziolako laino horrek, baina gero zeharo jeitsi ziren temperaturak, eguzkiaren izpiak ez baitziren lurrazalera iristen. Bizidun gehienak hil egin ziren, dinosaurioak eta amoniteak barne.

Eta Algorri inguruan zer dago ba hain berezia dena? Atmosfera estaltzen zuen errauts laino hori pixkanaka lurrera eta itsasora erori zen, geruza bat osatuz denborarekin. Geruza honetan, iridio asko aurkitzen da. Metal hau oso urria da lurlean, eta batez ere

meteoritoetan aurkitzen da.

Geruza hori beste batzuren azpian geratu zen (pentsatu lurrazala etzanda dagoen liburu bat dela, eta denborarekin osatzen diren geruza hauek, liburuaren orriak).

Pirineoak sortu zirenean, indar tektonikoengatik lurrazala zimurtu egin zela esan

daiteke. Tolestu egin zen, eta Zumaia eta Deba artean bereziki, lehen etzanda zeuden geruzak tente geratu ziren, posizio bertikalean, eta gainera itsas hondotik atera ziren, agerian geratuz.

Eta agerian geratu den geruza horien artean dago errauts eta iridioz osaturiko laino hark sorturikoa. Algorriko pizina bezala ezagutzen den horretan ikus daiteke geruza hau. Beraz, Algorrin ezin dira ikusi dinosaurioen aztarnak, teoriar hauen desagerpena eragin zuen meteoritoak sorturiko geruza baizik.

Aurkituko al zenuke itsas hondoan, 100 metroko sakoneran elefante baten hezur arrastorik? Kostatuko zaizu!

Iosu Aizpurua, geologoa

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



BASADI-ZUSTATEGUIA, 4-A
ZUMAITZ
TEL. 863001

HERATEGI
URDATEGI

ENTER INFORMATIKA
BALASAR DE ETXABE z/g
ZUMAIA

☎: 86.11.75

☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA
SERBITZU TEKNIKOA
HARDWARE ETA
SOFTWARE
INFORMATIKAKO KURTZOAK



NON daude gure sentimenak

Nola aberastu gure sexualitatea obligazio berriak sortu gabe? Eta nola bideratu gure potentzial sexualaren lanketa eta aberastea berriro ere gure jokabidea eta jarrera sexualak zurrin bihurtu gabe?

Erotismoaren eremuan pertsona bakoitzak den baino gehiago eman eta izaterik ez duela egia izanik ere, ere berean ez da gezurra guztiok baditugula gure organismoak emandako hainbat aukera eta nahi dugunean hauetaz balia gaitzkeela. Honekin gure sentimenei egiten diet erreferentzia, eta hauen barne umoreari ere bai noski! Oso sugerentea da hauetako bakoitzaren lanketan denbora bat ematea.

Baina hala ere pertsona askok elkartzeko sexualaren eszenatokia belatorio bihurtzen dute. Gutxi egiten dute barre eta jolas amodioa egiteko garaian, eta horrela besteenganako harmena lo geratzen da. Horregatik, ez dirudi gure gaitasun sentoriala oso esna dagoenik!

Gogoeta gisa! Praktika sexuala edozein izanda ere, zenbat aldiz begiratzen diogu elkarri konplizitatez eta era sugerente batean? Zenbat aldiz esan eta entzuten ditugu gustokoak ditugun espresioak? eta zenbat aldiz «moztan» gara kurtsiak eta edo oso zakarrak izango garelakoan? Eta hori askotan espresio askoz ere

erromantikoagoak edo bestetan gogorrak entzutea nahi izanda... Usain berdineko bi pertsona ez daudela eta guk geuk ere eszitazio momentu ezberdinetan usain desberdinak izaten ditugula jakinik ere, zenbat aldiz usaintzen dugu elkar? Zenbat aldiz ukitzen dugu elkar benetako kuriositatearekin? Zenbat aldiz dastatzen ditugu gure zapore desberdinak? Zenbat aldiz aritzen gara barrez eta txantxetan gure harreman sexualetan?

Begiraden jolasera, barre egitera, ukitzera, belarrien oparietara edota gure usainak aurkitzera gonbidatzea nahiko leloa dirudi bizi garen ingurua kontuan izanik. Gaur egun zaporeen dibertsitatea gero eta zailagoa bihurtzen da, soinuaren kutsadurak

gure tentsioa handitzen du, eta gorputzen kontaktuen zenbait tabuk oso eguneratuta jarraitzen dute; adibidez gizonen arteko kontaktuaz egiten diren balorazio irinikoak, edo gure lagunekin egindakoak. Eta usainen homogeneizazioak ere bide bera jarraitzen du. Azken finean ez da broma jasaten dugun gutxitze edo pobretze sentoriala, eta ondorioz gure inguruneaz jabetzeko gutxitze automatikoa.

Elkar begiratu, entzun, usaindu, ukitu eta dastatzea beharrezkoa izan zen gure bizitzako lehen urteetan, guzti hau bizirik dagoen organismoa ginela ikusteko, eta ondoren gure ingurunearekin kontaktuan jartzeko, beharrezkoa baitzen osasuntsu garatu eta hazi gintez. Ondoren gure gorputzetaz lotsatzen hasi ginen (hesteen soinuak, hilerokoaren usaina...). Ezagutzaren desioa progresiboki baztertu izan da kontrolaren nahia bideratuz. Nola eman daiteke pertsonen arteko komunikazioa eta ezagutzaren aberastasuna, gure pentsamenduak eta zentzumenak uztartuz ez bada? Berotasuna kuriositatearekin elkartuz gure hartzeko bideak ireki eta esploratzera eramango gaituzte. Iritsi da udara, eta berarekin berotasuna. Aprobetxatu!!



Ainhua Iturbe



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780



MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569



diseinu grafikoak
kreatibitatea
irudi korporatiboak
maketazioa
diseinuak

Julio Beabide, 2 ZUMAIA Tel. 86 28 05



Arratibel anaiak eta Egaña-Aizpurua garaile San Pedro pala txapelketan

San Pedrineko finala berriz, Serna eta Bilbaok irabazi dute

Frontoia jendez gainezka zegoela jokatu ziren ekainaren 27an III. San Pedro pala txapelketako finalak. Ustekabeko gutxi eta emozio handia, hauetxek izan ziren azken partidua hauetako ezaugarri nagusienak.

Guztira, bost norgehiagoka jokatu ziren. Emakumezkoen txapelketan, Marijo Aizpurua eta Ana Egañak osatutako bikoteak jantzi dute txapela, finalean Salegi eta Manzisidorri erraz irabazi ostean.

Hemen ordea esan behar da, Manzisidor azken orduan ondoezik jarri, eta ondorioz presaka eta korrika ordezeko pilotari batek jokatu beharra izan zuela. Eta inolako meriturik kendu gabe, bere hutsunea nabarmen igerri zen. Hirugarren postuan Aizarnazabaleko Gabarain ahizpak sailkatu dira, eta laugarren Grijalba eta Etxabe.

Xabier Uranga eta Marijo Aizpurua izendatu dira txapelketako jokalaria hoberenak

Gizonezkoetan aldiz, eta San Pedrin txapelketari dagokionez, benetan gogorra Serna-Bilbao eta Aser-Marcos bikoteek elkarren aurka jokatutako finala. Azken tanturarte

Aurten oikiarrek erabateko nagusitasuna erakutsi dute.



ez zen neurketa erabaki eta azkenean, norbaitek irabazi behar eta lehenengoak suertatu ziren garaile. Hori bai, lau pilotariak leher eginda gelditu ziren, ordu bete pasa jokatzen jardun ondoren. Javi Bilbaok aurtengoan bigarren aldiz lortu du San Pedrin saria irabaztea.

Pronostikoak bete

San Pedroko final nagusian Arratibel anaiek ez zuten kale egin eta ez zieten inolako aukerarik eman Ostolaza anaiei. Partidua goitik behera dominatu zuten, nahiz eta galtzaileek zaletuen gehiengoaren animo eta laguntza handia jaso.

Pronostikoak beraz, goitik behera bete dira, oikiarrak baitziren txapelketa irabazteko faborito garbiak; torneo guztian zehar garbi ikusi da, beste partehartzaile guztiek

baino askoz joko maila altuagoa dutela. Hirugarren tokian Uranga anaiak geratu dira eta laugarren Alkorta-Urbieta bikote gaztea, iaz azpitxapeldun izandakoa.

Txapelketako jokalaria onenen sariak ere banatu ziren. Emakumeetan, Marijo Aizpuruari egokitu zitzaion garaikurra eta gizonezkoen mailan berriz, Xabier Uranga atzelariari. Beste bi sari berezi ere egon ziren. Batetik, Sebastian Ulaziarentzat jokalaria beterranoena izateagatik eta bestetik Romualdo Artetxeri ere oroigarri bat eskeini zitzaion. Romualdo txapelketa honetako antolatzaile nagusia dugu, baina zoritxarreko istripua bat tarteko, ezin izan ditu torneo honen nondik norakoak behar bezala jarraitu. Hemendik, lehenbaitlehen erabat osatzea opa diogu. ■

SOLOZABAL AUTOESKOLA



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Gidatzeko karnet guztiak

-Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
-Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
-Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



Loitz

Erribera 4
Tel./Fax:
143422

*Eskola eta bulegorako materiala
*Enkoadernazioak
*Fax publikoa
*Aldizkari eta opariak

Dena prest Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloirako

Zumaia-Zestoa-Azkoitia hirugarren triatloirako astebate eskas falta denean, bertan parte hartuko duen gazte zumaia batekin hitz egin nahi izan dugu, 28 urteko Mikel Sasiainekin hain zuzen ere. Gero eta zaletu gehiago dituen kirol honetaz aritu gera solasean berarekin.

NOIZTIK ZABILTZA TRIATLOIETAN PARTE HARTZEN?

Orain dela bost urte Lekeition egin nuen nere lehen proba. Aurrez duatloietan aritzen nintzen eta triatloia gustatzen zitzaidala konturatu eta aurrea jo nuen gaur arte.

KUALIDADE BEREZIAK BEHAR AL DIRA KIROL HONETAN ARITZEKO?

Konstantzia eta gogoa. Gogoa denborarekin lortzen da, eta konstantzia ba...norberak hartzen dio neurria entrenamenduetan, entrenatzeko duen denbora kontuan hartuta. **BAINA PREPARAZIO BEREZIA ERAMAN BEHARKO DEZUE, EZ?**

Gure mailan ibiltzeko preparazio berezirik ez da behar izaten. Mundu honetan dabilen jendearekin hitz eginez moldatzen



Mikelek urte asko daramatza triatloietan parte hartzen.

gera, zer nolako entrenamenduak egiten dituzten jakin, zenbat denboratan bete behar den triatloieko proba bakoitza... baina ez gehiago.

ESATEN DEN BEZAIN SAKRIFIKATUA AL DA?

Neri ez zait hain sakrifikatua iruditzen. Honbre, hotzean begiratzeko badezu, igeriketan, txirrindularitzan eta korrikan egiten degun esfortzua, ulertzen det kanpotik jendearentzat «astakeria» bat izatea. Baina dena praktika kontua da; praktikatzeko badezu ez da hain gogorra egiten, beste edozein kirol bezela.

TRATLOIA OSATZEN DUTEN HIRU MODALITETATIK, ZEIN DA KONPLIKATUENA?

Zailena korrika egitea da; azken proba delako, eta gorputza ia topera daukazu, helmugara iristeko gogoz. Orain, neure kasuan igeriketa saioa egiten zait gogorrena, ez naizelako gaztetatik igeri egiten ohitu. Hemen gozatu baino sufritu egiten det gehiago. Baina azkenean sufrimendu eta tratu txar guziak gainditzen dira eta izugarritzko satisfazioa sentitzen dezu.

GERO ETA INDAR GEHIAGO ARI DA HARTZEN?

Indartuta dagoen arren, federazio mailan nahiko estankatuta dago. Gainera, proba asko bertan behera gelditu dira, diru falta dela eta, esponsorrik ez dagoelako. Hala ere, 2000. urteko joku olinpikoetan kirol ofiziala izango da eta honek ere dudik gabe, asko lagunduko dio triatloiari.

Bukatzeke aipatu, hilaren 19ko triatloi hau hasi baino lehen, omenaldi bat egingo zaiola Karibeko uretan desagertutako Dina Bilbaori. Emakume hau hainbat urtetan punta-puntan aritua da triatloi probetan. ■

Jesuskoa
Fateltzea

Afeka 86 17 39 • C/ikia Zumaia

Huntza, o.k.

DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

xirula

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEA
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

SERIGRAFIA

KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Telf: 860569

EGUZKI
PUB

KOKTEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

SAHATSA

taldearen eskutik
**EUSKAL
DANTZA SAIOA**
Uztailak 12, larunbata
Gaueko 11etan
Odietan

MOLDAVIA^{ko}
folklore ikuskizuna
Abuztuak 6, asteazkena
arratsaldeko 8etan
Beheko plazan

PAPELETIK PLAZARA KANTALDIA

Uztailak 25, ostirala
Arratsaldeko 8etan
Beheko plazan

TXOTXONGILOAK



Uztailak 13, igandea
Arratsaldeko 8etan
Oxforden

TXO TITERES
taldeak aurkeztuta
RE 9 N

EUSKAL JAIK

Abuztuak 7, osteguna
*trikitixa, dantza ikuskizuna,
sagardo dastapena, eta abar...*

Uztailaren 17tik 20ra bitartean,
INPERNUPE kultur elkartearen 11.
urtemuga ospatzeko ekitaldiak:
ostegunean *hitzaldia*, ostiral
iluntzean *eskoba txapelketa*,
larunbatean *afaria* eta igande
eguerdian *hamaiketakoa* eta *kalejira*.

KONTZERTUAK

AGE PRIBATU SHOCK

Uztailak 11, ostirala
Gaueko 11etan
Itzurunen

RAKOTO (Madagascar)

Uztailak 19, larunbata
Gaueko 11etan
Beheko plazan

SUPERVIVIENTES (Granada)

Abuztuak 2, larunbata
Gaueko 11,30etan
Beheko plazan



BIRZIKLAPEN ARTE TAILERRA

Zumaiako Arte taldeak urtero egin ohi duen bezala, tailer irekia aurtien beste era batekoa izango da. Materiale birziklatuarekin egingo da lan (jostailu hautsiak, pote hutsak, plastikoak, egur zatiak, trasto zaharrak, etab.). Horretarako etxean baztertuta edo botatzekotan dituzuen trasteak bilduko ditugu Oxforden abuztuaren 15etik irailaren 2ra bitartean. Eta jasotakoekin eskultura post-moderno eta abangoardistak egin nahi dituen jende guztia gonbidatuta dago irailak 2 inguruan Oxforden egingo diren tailerretara azaltzera.

X. ARTE ERAKUSKETA

ERAKUSKETAK

Oxforden

Uztailaren 5etik 27a bitartean
JOSE LUIS ZUMETA
Uztailaren 30etik abuztuaren 14ra
KEIXETA
Abuztuaren 16tik 31ra
ANDER HORMAZURI

Forondan

Uztailaren 18tik 30era
Arte Ederretako fakultateko ikasleak
Abuztuaren 14tik 31ra
Zumaiako artistak

X. URTEURRENA OSPATZEKO FESTA

Uztailaren 24ko iluntzean Kofraian eta Oxforden musika, antzerkia, performance, dantza garaikidea, txalaparta, poesia...

HURRENGO TABERNARTE

Abuztuan herriko tabernetan

ARTE TAILERRA

Irailaren 2tik 7ra, Oxforden

Artisau feria

Urtero bezala uztailaren 29an artisautzari buruzko feria antolatu zen Odieta pilotalekuan. Era askotako postuak ezarri ziren, txalaparta doinu polit batek lagundurik. Denetarik ikusi ahal izan zen erakusketa honetan: modu artesanalean egindako gazta, ezti, ogi eta bestelako jakiak; erliebezko bordatuak, makrame eta tapiz batzuk; egurrez egindako hainbat tresna, pultsera, kartera eta maskara... Beharbada erakusketa osatzeko tailaz landutako irudiak falta izan ziren.



ERROTA

OPILO - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 66

Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01


ZUMAIA



**JUSTA
TABERNA**

EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20



NIKOL-ENEA
taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

**GURE TXOKOA
TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Zinea Zinea Zinea

SMILA.

MISTERIO EN LA NIEVE

Zuz: Bille August

Akt: Julia Ormond, Gabriel Byrne



espiritus). Azken lan hau Groenlandian egindako *thriller* bat da, eta milioika ale saldu dituen Peter Hoeg idazlearen best-seller batean oinarritua dago.

Smila, elurretan edozein aztarna aurki dezakeen glaziologo bat da. Emakume honen alboan bizi, eta

adiskide den mutiko bat hilik agertzen da. Jendeak istripua dela dio, baina Smilak teilatuko oin aztarnak ikusi ondoren, zerbait arraroa gertatu dela susmatzen hasten da.

Koadrotxoan aipatutako aktoreez gain, **Richard Harris** eta **Vanessa Redgrave** aktore bikainak aurki daitezke filme honetan. Zine kritikariei kasu eginez gero, ezin esan filme borobila burutu duenik Bille Augustek, baina behintzat, amerikar *thriller*arekin zerikusi gutxi du filme europar honek.

Zine kritikak

Al limite del riesgo
Zuz: Ringo Lam

EGIN

DV

Egunkaria

★

★

★

Smila, misterio en la nieve
Zuz: Bille August

★★

★★

★★

Camara sellada
Zuz: James Foley

—

★★

★★



Euskaraz

Ipuin gogangarriak. Antologia
Grafittien ganbara
Intelligentsia kimatuaren orbelak
Elgeta
Eguzkia ezkututzen denean

Askoren artean
Joxe Austin Arrieta
Paulo Iztueta
Joxean Agirre
Koldo Biguri

El mundo visto desde el cielo
Cuentos a la intemperie
Los cuadernos de Don Rigoberto
Emboscada en Fort Bragg
Becas flacas

Angeles Caso
Juan José Millás
M. Vargas Llosa
Tom Wolfe
Tom Sharpe

Haur/Gaztetxoak

Biolin bat Maribeltxarentzat
Aintzirako Altxor ezkutua
Denboraldi bat ospitalean
Bazen behin, behin bazen

Patxi Zubizarreta
Jo Pestum
Juan Kruz Igerabide
Antton Kazabon



Gaztelera

expert

ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

Etxezarreta 6

Tel. 861078 ZUMAIA

EGOKI

Erloju eta
bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Nazioarteko Musika Jaialdia

Jaialdia Euskal Herrira zuzendu nahian

XIII. Nazioarteko Musika Jaialdia hurbiltzen ari da eta aurtengo berrikuntzen artean aipagarriena Musika Patronatuak jaialdia antolatzeke hartu duen ardura da, orain arte bilbotar eta italiarrez osatutako CAM erakundearen zeregina izan baita.

Udal Musika Patronatuko bi kiderekin hitz egin dugu, besteak beste banda, musika eskola eta koruaren aktibitateak administratzen dituen erakundeko bi arduradunekin hain zuzen ere.

PROGRAMARI DAGOKIONEZ, ZE DINAMIKA JARRAITUKO DA HURBILTZEN ARI DEN HAMABOSTALDIAN?

Aurreko jaialdietako martxa polita iruditzen zaigu eta beraz orain arteko dinamika izaten jarraituko du jaialdiak, hori bai, aldaketa batzuekin: Oskorrik kontzertu bat emango du, Bikondoaren akordeoi orkestra ere bertan izango dugu, Xabier Lizaso oriotarra ere bai pianoa jotzen eta baita Kontakarion taldea ere, Donostiatik antzinako musika lantzen. Guzti honekin jaialdia Euskal Herrira gehiago zuzendu nahi genuke, italiar itxura hori gutxituaz.

Bestalde, jaialdi hau kalera eraman nahi dugu, eta helburu hori lortzeko bi emanaldi kalean izango dira, horietako bat Mari kalean.

ZE IKASTARO EMANGO DIRA AURTEN?

Paul Badura-Skodarekin piano ikastaro bat egongo da. Duela zortzi



Inazio Tolosa eta Mertxe Argintxona, Nazioarteko jaialdiko zuzendariak.

urte gure artean izan zen pianista honek ikaragarritzko arrakasta izan zuen, izan ere 130 irakasle azaldu baitziren haren ikastarora.

Cristofori laukoteak, azken hiru urte hauetan bezela, ganbara ikastaro bat emango du. Hau garai ezberdinetako musika tresna jatorrizkoekin jotzen duen talde bakarra da.

Azkenik aipatu behar da jaialdiko ospe handiko orkestran ere parte hartzea posible izango dutela ganbara ikastaroko zenbaitzuek.

IRAKASLE NAHIZ IKASLEAK AUKERATZEKO ORDUAN KRITERIORIK ERABILTZEN AL DUZUE?

Irakasle oso onak ekartzeak diru asko suposatzen duenez, esperientzi

eta kontaktuen arabera prezio baxueagoagatik klaseak emateko prest dauden maixuak ekartzen ditugu, baina aldi berean onak. Aipatzekoa da, urte askotan Zumaiako jaialdi honetara etorri diren irakasleek prezio baxuak jartzen dituztela, izan ere lotura ekonomikoa baino askoz sakonagoa da hauek Zumaiarekin daukatena.

Edozein musika ikaslek hartu dezake parte entzule bezala ikastaroan, baina partehartzaileak irakasleak egindako selekzio baten arabera aukeratzen dira.

ZER POTENTZIATZEN DA NAZIOARTEKO MUSIKA JAIALDI HONETAN?

Ikastarora etortzen direnak



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

Euskal Herri, estatu eta nazioarteko mailakoak direnez ez dira elkar ezagutzen. Irakasleak egiten ditu taldeak eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu elkarlan hori.

Aldi berean, formazioa ere ezinbestekoa da eta aipatzekoa da goi maila garrantzitsu bat lortuta dagoela 13 urte hauetako lanaren ondorio bezela eta hori mantentzea ezinbestekoa dela.

«Horrelako kontzertu batean inoiz egon ez den jendea erakarri nahi dugu»

Beste puntu garrantzitsu bat publikoa da. Dagoeneko badago kontzertuak entzutera etortzen den publiko finko bat, eta hauetaz gainera horrelako kontzertu batean inoiz egon ez den jendea erakarri nahi dugu, lehen aipatutako aldaketekin jaialdi honen maila altua apreziatzera iritsiz.

BA AL DU ERAGINIK ZUMAIAN HORRELA KO NAZIOARTEKO JAIALDI BATEK?

Zumaian hotelik ez dagoenez, herriko zenbait familik ostatua ematen die kanpotik etortzen direnei eta hauek ordaindu egiten diete. Nahiz eta antolatzaileentzat errezagoa izan denak hotel batera eramatea, ez da horrela egiten eta diru etekin guztiak herrian geratzen dira.

Kanpotik datozen musikariei ostatua eman nahi dutenek Foronda kultur etxera dei dezakete goizetan, eta bertan argibideak emango zaizkie interesatuei. ■

Jaialdiko egitaraua

ABUZTUAK 1, OSTIRALA

Arratsaldeko 7etan, Forondan

Jaialdiko hasiera ekitaldia:

Garcia Lorcarri omenaldia.

Gaueko 10,30etan, Maria eta Josen

Parrokiako San Pedro abesbatza.

ABUZTUAK 2, LARUNBATA

Gaueko 10,30etan, Parrokian

Grupo Kontakarioren.

ABUZTUAK 3, IGANDEA

Gaueko 10,30etan, Maria eta Josen

Paul Badura-Skoda pianojolea.

ABUZTUAK 4, ASTELEHENA

Gaueko 10,30etan Aita Marin

Xabier Lizaso pianojolea.

ABUZTUAK 5, ASTEARTEA

Gaueko 10,30etan, Maria eta Josen

Jaialdiko Orkestra.

ABUZTUAK 6, ASTEAZKENA

Gaueko 10,30etan, Maria eta Josen

Cristofori laukotea.

ABUZTUAK 7, OSTEGUNA

Gaueko 10,30etan, Maria eta Josen

Oskorri.

ABUZTUAK 8, OSTIRALA

Arratsaldeko 7etan, Mari kalean

Orkestrako haize

instrumentuekin saioa.

Gaueko 10,30etan, Aita Marin

Ganbara musika: Workshop.

ABUZTUAK 9, LARUNBATA

Arratsaldeko 7etan, Aita Marin

Piano ikasleen saioa.

Gaueko 10,30etan, Aita Marin

Donostiako kontserbatorioko

Eskukosoinu Orkestra.

ABUZTUAK 10, IGANDEA

Gaueko 10,30etan, Aita Marin

Ganbara musika lehiaketa.

ABUZTUAK 11, ASTELEHENA

Gaueko 10,30etan, Parrokian

Jaialdiko Orkestra.



ONCE

**JOXE
MANUEL**

Kupoiak tailer, etxe
eta dendetara
eramaten dira.

Tel: 862347-861001



ilarfi
kontzertuz eta musikaz blai

ALAI AUZATEGIA, 2 - TLF: 143324



*Motxian
hi!*

Zein: Ainhoa Mendizabal
Zer: begiralea

-ZENBAT URTE DARAMAZKIZU LAN HONETAN?
KANPOAN BI URTE ARITU NITZAN ETA ZUMAIAN HAU
5.A DA, BAI LUDOTEKAN BAI UDALEKUTAN.
-ZER BEHAR DA BEGIRALE EDO MONITORE IZATEKO?
UMEAK GUSTATZEAZ GAIN INIZIATIBA BEHAR DA,
EDOZER GAUZA EGITEKO: KANTATU, TXITIBUELTAK
EGIN, UMEAK ANIMATU... PAZIENTZIA ETA
GOXOTASUNA ERE BEHAR DIRA.
-ZENBAT BEGIRALE ZAUDETE AURTEN?
ORAIN 20 GAUDE, GEHI 3 PRAKTIKAN DAUDENAK.
-ETA ZENBAT NESKA-MUTIL DABIL UDALEKUTAN?
TXANDA HONETAN 200 INGURU DAUZKAGU.
-ZUK ZEUK ZENBAT SEME-ALABA EDUKIKO
ZENITUZKE, AUKERA IZANEZ GERO?
AURRENA NOBIOA BILATU BEHAR, ETA GERO
IKUSIKO GENUKE.
-ISTRIPUTXORIK IZAN AL DEZUE UDALEKUTAN?
EGURALDIA IZAN DA ISTRIPU GALANTA, LEHENGU
ASTE GUZTIA IKASTOLAN SARTUTA PASA GINUN,
ESKULANAK EGITEN.
-ERRIETA ASKO EGITEN AL DEZUE?
ERRIETA BAINO GEHIAGO KURRIXKAK EGITEN
DITUGU; EZIN ZAIE EDOZER GAUZA EGITEN UTZI.
-ZER MODUZKO SAN FERMINAK ZUMAIAN?
PRIMERAKOAK. IKASTOLAN JANTZI, MARI KALEKO
BALKOIAN TXUPINNAZOA BOTA, PREGOI ETA GUZTI,
ETA ERRIBERA KALEAN ZEHAR BEHEKO
PLAZARAINO ETORRI GERA, ZEZENEN AURRETIK.
-UMEAK AZALTZEN AL ZAIZKIZU AMETSETAN?
BATZUTAN BAI, BATEZ ERE EGUN «BEREZIAK» ETA
FUERTEAK DAUDENEAN. EGUN HORIEK PRESTATZEN
OSO «ESTRESATUTA» IBILTZEN GERA.
-BIHURRIAK AL DIRA ZUMAIKO UMEAK?
BAI, EZ DIRA BATERE MOTELAK ETA TONTUAK.
BAINA JENERALEAN JATORRAK DIRA.

SALEROSKETAK

Sonor markako
perkusoio batera bat
salduko nuke. Tel.
861559 (Imanol)
Eguerdian deitu.

Lanak, grafikoak,
estatistikak...
ordenagailuz pasatzen
dira. Telefono zenbakia:
860667.

AGURRAK

Karro, txitxarrua ez al
zaik gustatzen? Ba jan
zak berdela! Hur, hur,
hur!

Mante, mutrikuko
festeta joan beharko
haiz, bestela ez dago
saririk.

Hainbeste maite dugun
klink-klank, klink-klank
desagerturik, eta gu
mozkor-mozkor eginda,
osaba bizian biraka.
Espinete eta Don Pinpon.

Xoxua, garaje alde
hortan ze aberi in dik
pelutxik?

Estitxu: geometriako
irakasle baten bila nabil,
ahal bada beltz-beltza.

Mante, makal haiz!
Oraingo honetan
kuadrilakoei bizkarra
ematen goizo hasi haiz
neskatan.
Mr Bridge.

Ainhoa: Cebanc-eko
girua bukatu da,
kajerosan ari da pilua
egiten, beraz atea
txanpaña!!! Batxupa
ospatzeko prest!

Itxaso! Berbena eguna
iristen ari da ta Apixen
tximak ere peinado de
fantasia baten beharrean
daude, beraz, al atake!

Ke pasa, ixpuli! Guazen
hai poligonoa, Ilargin
baino ambiente hobia zio!
eta! Katxete kon katxete,
petxito kon petxito... Eo
bestela Un, dos, tres, un
pasito palante, Maria,
Earra in huan aukera, hi!
El Gato Lopes

Ixiar! Zita bat daukazu
batxuparekin estriptisa
egiteko. Existau gabe
eh?

Iñi ze Txitxarrora zure penak
itotzera ze Vicen neska
partidura joaten denean %
200 ean irtetzen haiz

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORJINALAK; HP, EPSON...
Fotokopiak 5 pezetan
Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

BIZKOR
FOTOKOPIAK



Basadi 1-4, beheko - Tlf: 145120



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN SARANDIARAN
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 beheko
20750 ZUMAJA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
-24 orduetan
-Zeure etxean

Tel. mugikorra: 908-775508

Jose Agustin Gurrutxagak irabazi du IX. Argazki Lehiaketa

Aurtengo lehen saria, 45.000 pezetakoa, Jose Agustin Gurrutxaga bergararrak eskuratu du, «Erretzen» izeneko lanarekin. Bigarren saria Fermin Etxeberriarentzat izan da, eta hirugarrena Felipe Loiolarentzat.

Zumaiarren zuzendutako sari berezian, diapositiba onena Juan Ramon Llaborirena izan da, eta 15.000 pezeta jaso ditu.

Argazki hauen erakusketa Forondan egongo da ikusgai, hilaren 16ra bitartean.



Imanol Azkue eta Vicki Vazquez Ermuan sarituak

Ermua Hiriko III. literatur lehiaketan, ipuinen atalean bi zumaiarren lanak izan dira irabazle. Euskaraz, Imanol Azkuek idatzitako «Aintza lurrean» ipuina izan da onena. Honekin dagoeneko 3 sari irabazi ditu Imanolek bere ipuinekin, horien artean Julene Azpeitiako zumaiar onenarena.

Gaztelaniazko lanen artean, Vicki Vazquez nagusitu da, «Una copa de néctar» izeneko ipuinarekin; hala ere lehiaketa honetara aurkeztutako Vikiren beste bi ipuin ere oso maila onekoak omen ziren.

Biek ere 40.000 pezetako saria jasoko dute. Zorionak, eta ea laster sari gehiago ekartzen dituzuen!

Bi sari ikasle zumaiarrentzat

Zumaiako ikasleak ere oso fin dabilta lehiaketa kontuetan. Batetik, Maria eta Jose ikastetxeko 6-A mailako neska-mutilek Aldundiak antolatutako lema lehiaketa irabazi dute. Lehiaketa «Hondartza garbiak» kanpainaren barruan kokatzen da, eta Gipuzkoako osoko ikasleek aurkeztutako lemen artean Olatz Arregik asmatutakoa aukeratuta dute, «Hondartza garbia, denontzat oparia» dioena hain zuzen. Sari gisa Olatz eta bere gelakideak Futuroscopera joango dira irailean, hiru egunetarako.

Bestetik, Zumaiako Herri Eskolako ikasleek, Urola-Kosta Mankomunitateak antolatutako zaborren trataerari buruzko lehiaketan lehen eta bigarren sariak eskuratu dituzte.

ZORIONAK!



SARIAK

1. saria.....25.000 pta
 2. saria15.000 pta
- Zumaiar onenarentzat15.000 pta**

ZUMAIKO III. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA

Uztailaren 30ean amaituko da lehiaketa honetan parte hartzeko epea. Gogoratu marrazkiak txuri-beltzekoak izango direla, edozein teknika erabiliz eginak. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokienez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.

Lanak helbide honetara bidali edota bertan utziahaz izango dira:

FORONDA KULTUR ETXEA 20750 ZUMAI

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean **"ZUMAIKO III. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA"** eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai.

Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuaren erdi aldera emango dute aditzera beren erabakia. Bestalde, originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzeko.

Saritutako lanak Baleikeraren jabegopean geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.

KOSTA GAS



ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala



Lehiaketa Goxoa



Aurreko
hilabeteko
irabazleak
**ARRITXU
URBIETA,
KRISTINA
ETXABE,
NAGORE
AIZPURUA** eta
ALAZNE

ETXABE izan ziren, baina azken hau ez
zen agertu. Barrako artelanen egilea
JAVIER ELORRIAGA zela ederki asmatu
zuten. Zorionak !!!

**Atzean berria egin dutela
kontuan hartuta, zer
zegoen eliza honen
aurrean?**

Asmatzen duzuenon
arteon **TXAPARTEGI
GOZOTEGIAK**
emandako
tarta zoragarri bat
zozketatuko dugu.
Parte hartzeko nahikoa
duzu erantzuna Txapartegin bertan
edota gure buzoian uztea
abuztuaren 8a baino lehen. Zorte
on!

